

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Migel Mendiburu Burundegi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1934-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Elenategi baserrian jaio zen, Martuteneko eremu hori artean Altza herriko zati zen garaian. 14 urterekin igeltsero hasi zen lanean, eta beste hainbat lan probatu zituen segidan: tornulari, inprentako lanak, transformadoreak egitea... Halako batean Ameriketara joateko aukera izan zuen. Txilen zazpi urte egin zituen: hasieran mahatsa biltzen, gero okindegi baten kargu eta gasolinarekin amaieran. Baina garbi zuen Euskal Herrian bizi nahi zuela. Bueltan gasolindegia jarri zuen baserriko lurretan. Hortxe dago orain ere. 50 urterekin ezkondu zen, 25 urteko emakume batekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-035

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-16
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Elenategi baserrikoa

- **Erref:** DON-035/002
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:47. **Bukatu:** 00:01:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Elenategi baserrian jaioa da. Jabea Hondarribikoa zen. Baserritar gehienak errentan zeuden lehen.</p>

Transkripzioa

- Eta non jaiotakoa zara zu?
- Hementxe bertan, hemendikan hirurehun metroa basarriya hortxe dakagu, bai.
- Eta nola daka izena baserri horrek?
- Basarriya horrek du izena Elenategi.
- Elenategi.
- Bai. Ohittuera bada e Elenak, Elenak eta bai, bai, Elenategi bai, bai.
- Hor Elenan bat biziko zan?
- Bai, bai, Hondarrabikuak emen zian, bai. Garai haitan hemen basarri guziin jabiak zian, ba, kanpoko jendia zan. Ez dakit ze ohittuera egongo zan eta orduan kanpoko jendia. Eta geo haiek jun zian /juntzian/ saltzen eta basarritarrak zeon ez morroi baino zeon pixka bat... ez da apropillo baizikan...
- Maizter?
- Bai, bai, bai. Hortxe.... Ta geo in zuten haiek, pues, batak eta bestiak pixkaka-pixkaka denak basarriya erosi in zuten /intzuten/, erosi, bai, bai, bai.

2. Aiton-amonekin bizi ziren

- **Erref:** DON-035/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Zazpi senide ziren, baina bi umetan hil ziren. Aitona-amonak beraiekin bizi ziren; ondoko bi baserritakoak ziren, eta halaxe ezagutu zuten elkar. Orain Internet bidez ezagutzen dute elkar gazteek.</p>

Transkripzioa

- Eta zuek zenbat senide zineten?
- Gu giñan zazpi, baiño nik bi ez niñun ezautu, zergatikan oso txikitari biyak hil zialako /hiltzialako/, bai.
- Ta zu zenbatgarrena zea?
- Ni naiz oain azkenekua, azkenekua, bai. Beste anai bat banuan, hua Ameriketara hil zan, eta beste arreba bat hil zan hemen eta beste arreba bat hil zan /hiltzan/ bestia eta oain beste anai bat badaukat bai, bai, bai.
- Eta aitona-amonak zuekin bizi ziran ala gurasoak bakarrik?
- Ez, aitona-amonak´e bai; bai, aitona-amonak´e bai. Ta, gaiñea, aitona zan, zuk badakizu Zapiain Otañon-ta etxia. E? [rondatikan] hurrengo hiru etxiak dia Otañonak, bai, pues, horkua zan, gure gure,aitona, nee aitona, eta amona zan, pues, basarri hontakua. Eta orduan biyak... Oain ya [basuak´e] zikiñak daude ta, baiño bestela ikusten zian bat bestiai, bat bestiai ikusten zian, bai, bertatik bertaa. E? Bestela, askok oain esaten dute "ba ezkondu in dia" eta "bai? eta nun ezautu zuan ba?" eta "ba interneten", "Aaa... urruti xamar, hortaz!". Bai, bai. Ba oain halaxe dago ohittuera.

3. Ama neskame, Astigarragan

- **Erref:** DON-035/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Guraso biak ziren donostiarrak. Ama neskame zegoen Astigarragan; ezkondu zenean, utzi egin zuen, baina ordezko bat aurkituta. Andoaingo neska bat zen, eta Astigarragara ezkondu zen hura gero.</p>

Transkripzioa

- Zure aita ta ama biyak zian donostiarrak?
- Bai, nere aita basarri hontakua eta ama zeon neskame Astigarragan, hementxe inguruan. Eta... Neskame zeon ta, gaiñea, hemeretzi-hogei urtekin, pues ya ezkondu bihar zunian /bihartzunian/, pues, esan zion etxe jabiai esan zion /esantzion/ "Zu, ba, nik jun biharra daukat etxe hontatikan. Oso gustoa nao, baiña nik jun biharra daukat, ezkondu in bihar det eta", "Zuk ezkondu in bihar dezu?", "Bai", "Ondo ingo dezu, baiñan zuk hemen daukazu zor bat", "Ta nik ze zor daukat ba?", "Ba ekarri bihar dezu zure tankerakoa, beste bat. Hua ekartzian izango zea libre hemen". Eta ekarri emen zun /ementzun/ ba Andoaindikan, Andoaindikan. Ta Andoaindikan ekarri zun emakume hori, beste bere edadeko bat, ekarri zun hua eta geo hori ezkondu zan tablakuakin. Tabla badakizu nun daon? [Astigarrako] benta zuazela e pues Katxo-ta nola dia, Zapiain-ta... e? Ezautzen dittuzu zuk?
-Ez haidi beidatzeko.
-Aaa. Bai, bai, bai, bai. Aittu, ba, esan nahi nion ba...
- Hara ezkondu zan?
- Bai, bai. O sea ke, geo etorri zan hua, etorri zan hua, ezkondu zan hango basarritar batekin, eta familia haundiya ekarri dute eta martxa haundi dakazkite haiek, bai, bai , hemen, Astigarragan.

4. Baserriko bizimodua: etxez etxe saltzera

- **Erref:** DON-035/005
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:05:07. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Baserriko bizimodua. Etxez etxe saltzen zuten. Tranbian joaten zen ama, esnearekin. Bueltan txerri-jana ekartzen zuen. Txerriaren bertuteak aipatzen ditu. Txerri bat ala bi hazten zituzten.</p>

Transkripzioa

- Eta baserriko bizimodua... ze juten ziñaten, berdura-ta saltzera plazara?
- Bai, berdura saltzea; etxez etxe entregatzen zuten orduan gure amak-eta entregatzen zuten. Eoten zian... tranbia [kruzatzen] zan, tranbia sartzen

zan ya Bretxan bertaiño sartzan zan, ta han eoten zian, pues, xisterak-eta mugitzeko, pues, hortan lana itten zuenak. Kobratzen zizuen ta... Hoi hola zan. Ta, ordun, zuk eamaten zenun, amak eamaten zun, pues, esnia ta gauzak etxez etxe bere klientieidi, e? bere klientieidi., bai. Ta, ordun, handikan ekartzen zun geo, pues, txerri-jana. Txerri-jana zan txerriyantzako. Eske txerriya da, txerriya da danik onena eta leialena, gaiñea. Txerriyak duna dena da ona, ona. Eta, in zazu kontu, txerriyak... dena jaten da. Txerriyak ez du grasik, du manteka du horrek; grasa dute bestiak, beste... ganaduk eta hoiek dute. Eta, orduan, pues, zuk txerri bat o... Geo haiek haien familiya haundiya zanian pues bi txerri hazitzen zittuzten. Geo ya bat.

5. Txerri hiltzea eta "txerrimunik"

- **Erref:** DON-035/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Txerri hiltzea festa handia zen. Harakina joaten zen txerria hiltzera. "Txerrimunik", txerri muinak partitza. Guardarentzat izaten zen puska onena, isats aldea.</p>

Transkripzioa

- Baiño etxian zan festaik haundina urtero ezaten zan txerriya hiltzen zan egunian. Oooo.. egun hortan... bueno! Egun hortan jaten zenun ona ta nahi aiña.

- Eta nola izaten zan hori? Oso goiz hasten ziñain?

- Ez, hori ezaten da negu partian sartzan zea, negu partian ezaten da, bai.

Oain´e bai badaude txarrik eta baa... Bizkaian itten dute "txarri borda".

"Txarri boda" esaten diote, bai, txarri boda iten diote, bai, bai, bai.

- Zuen baserriyan nola izaten zan? Norbait etortzen zan txerriya hiltzera, ala...?

- Bai, bai, harakiñak, harakiñak bai, bai. Alvarok, Alvaro, bai.

- Zenbat lagunuen artean hiltzen zan txerriya?

- Txerriya... Txerriyak ba al dakizu zer dun beste ohittuera bat ona?

Txerriya hiltzen zan egunian gero txerrimunik eamaten ziñozun familiko etxeta. Eta, joe, hua zan oso ona gutzako, etortzen giñan iya patrikak kargauta diruakin. Propinakin. Bai ba. Oso ona zan, ohittuera hoi zan oso ona zan, bai. Ta geo, haiek hiltzen zuenian, pues, ordun´e bakoitzak hiltzen zun bezela entregatzen zittun. Bai, ohittuera ona, bai, bai, bai.

- Ta nola zatitzen zan txerriya? Ze zati iten zian?

- Aaa, bueno, bueno. Hemen ordun´e bazan... bazan moda bat eta orduan puskaik onena ematen zun hemengo guardak. Bonik, Bonik. Harek eamaten zun /eamatentzun/ puskaik onena.

- Ta zein zan puskaik onena?

- Ez, ez, isets alde hoi. Ba, ba, ba, bai. Oain´e zuek jaten baldin badezute haragiya, nola... isetsadun haragiya, oseake o behiya dala eo zezena baldin bada hobia oaindikan´e, eta hori da... oso ona da.

6. Igeltsero lanetan, 13 urterekin

- **Erref:** DON-035/008
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak

Laburpena:

<p>Baserri batzuetan idiak ere bazituzten. Baserri batzuk zatitu egin ziren. Martutene 1947an hasi ziren eraldatzen; igeltsero ibili zen bera han, 13 urterekin. Tximinia garbitzea inportantea zen, etxeak surik ez hartzeko. Igeltseroak egiten zuen hori ere. Sebastian lagunak beste lan baten berri eman zion.</p>

Transkripzioa

- Animali gehio ere izango zenuten...

- Bai, bai, bai. Ordun, ze esango dizut, pues, basarri fuertietan irik´e bazian, irik´e bai, baiño ya basarri furtietan. Baiño eitten da, eitten da, basarri fuertia izanaatikan, geo eitten dia, pues, zatittu. E? Eta, orduan, geo gertatzen da... Gue basarrin zian gue osaba Jose Migel eta nere aita. Eta, orduan, ya geo zer gertatzen da? Pues, pues, leno hamar behi zian lekun geo dia bost horrek eta beste bost honek. Hoi hola gertatzen da. Baiño beti ohittuera onak, e? beti ohittuera onak. Beitu, Martutenen, Martutenen aurreneko konstrukziyua etorri zan basarri batea, basarri batea, ta hua izandu zan berrogeita zazpin. Illesbone, Illesbone saldu zan berrogeita zazpin saldu zan. Hori´de Madriko jende batena zan, basarriya eta geo palaziyua. Palaziyua oaindik hor dao. Bueno, basarriya´re hor dago, bai. Eta hua s... hua saldu zan basarri hori. Eta hua saldu zanian, pues nik orduan eukiko nittun -ez dakit, ba- hamairu urte edo holaxe nittun eta ni´de saltsan -beak auzuak nola zian- ta hasi ta ni ibili nintzan igeltsero lanian beakin. Aurreneko ofiziyua in nun igeltsero, bai. Bai, bai, bai.

- Hori ze konstruziyotan, etxiak...?

- Bai. Orduan ba al dakizu ze gertatzen zan? Basarri guzi-guzitan, ba, ez zan /etzan/ butanoik. E? Eta, orduan, kontu haundiya bihar zan, tximiniya garbittu bihar zan /bihartzan/. Udazkinian iyo gora bola batekin eta rrrirra-rrirra, ondo garbittu! Hua garbitzen ez zunak... "zu, halako basarriya sutan dago!". Bai, ez zun /etzun/ tximiniik garbittu. Tximiniik garbitzen ez zunak hua... hua arrixku haundin zeon hua, bai. Etxe guzitan, e? Basarri... basarritan [behiñepin] denetan tximiniya garbittu bihar zan.

- Eta nork garbitzen zun tximinia?

- Igeltseruak.

- Igeltseruak?

- Igeltseruak, bai.

- Eta zu hortan ibili ziñan, tximiniya garbitzen?

- Bai, baita, baita. Bueno, baiño nik nittun hamahiru urte beakin jun nitzanian. Bea zan Hernaniko enterradoria, Juanito Goia. Bai, Hernaniko enterradoria zan. Bai. Eta horixe, bai. Garai haitan, e? Baiño, klaro, lanian´e ze esango dizut pues, pues... ni orduan nabillen hoiekin. Eta goatzen naiz, Sebastian "Mankua", bueno, haretxek esan zian, hemengo batek esan zian: "Aittu, beida, hemen Talleres Domanu...". Bai. Benito Manso Alonso zan gizon hua.

7. Tornero moduan lanean

- **Erref:** DON-035/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak

Laburpena:

<p>Tornado moduan hasi zen lanean, eraikuntza utzita. Martutenen bertan zen hura. Zuloak egin eta egin egun dena. Goma fabrika ere bazegoen. Sebastian laguna hantxe hasi zen, eta besoa galdu zuen istripuz.</p>

Transkripzioa

- Eta, orduan, esan zian Sebastianek, mankuak esan zian /esantzian/: "Aitu, ba, guk bihar degu tornero bat, etorriko haiz gukin?", "A, ez dakit nik, amakin hitz eingo det". Amakin hitz egin nun ta "Bai, hobe dezu igeltsero baiño, bai, jun zaitte, jun zaitte beakin". Ta, gaiñea, bertatik bertaa. Bestia jun bihar nun Hernania, aunke hemen aittu giñanian bertatik bertaa hua ´de zan, e. Eta, biñin, horrekin sartu ta zer ta "de tornero". Ta tornero zer zan? Ba tornero hori... eta jarri... bai, tornua zan eta kurpillaidi zuluak ein [...]. Hasi goizetikan ta gaba arte zuluak eta zuluak. Joe... zenbat zulo eitten nittun ordun! Huaxe zan euneroko lana, eunerokoa. Eta...

- [...]

- Bai, hementxe bertan zan, bai. Eta badakizu ze gertatu zen? Ba gure lagun hori, Sebastiani, ba, hua ´de utzi biharrian bere tailerrian, ez, hua ´re eraman bihar zun, goma fabrika zaukan azpiin eta hara eaman bihar zun. Eta gomak eitten zun, pues, hartu ta... zijuan goma dominatzen eta biguntzen eta... eskua harrapatu ziyon! Han galdu zun besua! Bai, goatzen naiz oaindikan korrika ni nola atea nitzan kamiyoa. Eta bazan Hernanin hola transporte [...] eitten zuna eta haretzek eaman zun gure Sebastian. Holaxe. Baiño ordun hola zan, ordun hola zien gauzak, e. Ta nik geo hemendikan hau ya... hau bukatu nunian, porke, klaro, nola ez nun ba bukatuko, aurreneko eunian ikasi nun zuluak itten ta! E? Osea ke holaxe zan.

8. Lan batetik bestera

- **Erref:** DON-035/011
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak

Laburpena:

<p>Loiolan topatu zuen hurrengo lana. "Kabrestanteak" egiten. Aspertu egin zen han ere, oso lan mekanikoa zelako. Tornuak egiten zituen tailer batera joan zen gero: Otaegi y Ruiz. Talleres Mateora, ondoren. Bi lagun zeuden han; bera txirriinduan ibiltzen zen eta bestea dantzan.</p>

Transkripzioa

- Loiola jun, Loiola jun, Hordago, bar Hordago badakizu nun zan. Beno, haren aldamenian. Pues han zer da ta bueno pues ya han bilatu deu lana. Bilatu deu lana ta hasi gea ta ordun itten zien "cabrestantes". Ta zer da "cabrestantes" hori? Hori zan polea euki biharrian iyo ta jetxi itteko frenua zuten, kabrestantiak zun frenua, eta horrekin. Baiño gauza bea gertatzen zan. Ta ordun in bihar zenun, ordun in bihar zenun /bihartzenun/ "Bueno, ya hau ikasi diat, ni baniak".

- Aspertuta, orduan?

- "Baniak", bai. Eta geo handikan... A, geo jun nitzan Talleres Otaegi Ruiz, tornuk eitten zian hor. Ta eunian tornu bat ateatzen zan, e, eta gu bagauden pues hortxe hamabost-hamasei urteko holako mutilak pues berrehun-o bagiñan. Ta ordun jartzen zizun bakoitzai bee lana ta "hau in bihar da" ta benga ta benga ta benga. Eta zuk esaten ziozun "Zu, hau nik badakit eitten hori ta kanbiatuko deu biyon artian?" ta "Ez, zuk segi zurian". Bueno, pues ala! ze esango det ba! Eta holaxe zan.

- Ta nola zuen izena fabrika horrek?
 - Talleres Otaegi Ruiz, bai, bai, bai. Otaegi zan erreziltarra eta Ruiz zan hemen Egiakua. Bai, bai, bai, hoi hola zan. Ta, ordun, pues zuk bilatu bihar dezu beste lana, bai? eta bilatzen...
 - [...].
 - Bai, ba, ba, ba, bai, bestela zu, bestela ze... ze in bihar dezu? Hau in bihar dezu eunero? Ez ba, ez ba, hoi nola, nola ba? Eta geo handikan noa jun nitzan ni?
 - Ameriketa?
 - Ameriketa geroago, bai, bai. Nik hortik... jun nitzan... Talleres Mateos. [...] Mateo, hua on-ona zan hua. Hua Alemanin ikasiya zan ta inprentetako lanak-eta eitten zitun. Ta gauden bi mutil, bi. Eta, orduan, zer gertatzen zan? Pues, beak esaten zigun "Yo no estoy en contra de los bailes vascos" esaten ziyon nee lagunai, hua "Grupo Goizaldi"n dantza eitten zun.
 - Zure lagunak?
 - E? Nere lagunak, bai. Ta ni, berriz, bizikletan ibiltzen nintzan. Eta, orduan, pues, klaro, biyok bihar genun guen denboa entrenatzeko, korritzeko, ta bueno. Eta ze gertatu zen? eta, zu, hau eaman zuten Kubara. Oaindikan Bautista zan ordun hango presidentia, Castro-ta geo etorri zian. Bai. Eta hara jun zian. Eta, bueno, pues harek esaten zuan, gure nausi horrek esaten zuen: "Yo lo que quiero es uno siempre al lado mío, uno siempre. ¿Tú vas a ir a correr? vete a correr, sí, pero el otro aquí el otro". Holaxe. Eta jun da, ba, [hoge] eguneako jun dia Kubara, ta joder, udara guziya, zu! Ez ziotela /etziotela/ uzten etortzen ta beak oso gustoa ta ni izorrai!
 - Zu lanean.
 - Ni lanean. Bai, ba, bai. Iñaki Gordejuela.

9. Ameriketara joan zen, Txilera

- **Erref:** DON-035/015
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:20:04. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak

Laburpena:

<p>Transformadoreak egiten ere ibili zen. Garai hartan jende asko joaten zen kanpora lanera, Frantziara eta. Lan txarrenak ematen zizkieten han. Ez zuenez halakorik nahi, Ameriketara joan zen. Zazpi urte egin zituen han. Nolatan joan zen, debalde. Itsasontzi italiar batean joan zen, Bartzelonatik Valparaisora (Txile), literan.</p>

Transkripzioa

- Eta geo, ba, hoi pasa zan, ta geo itten giñun transformadoriak, hemen, Ortiz y Abellán, hementxe bizi da, bai. Eta geo badakizu ze iten dan, jende asko, emakume eta gizaseme, juten zian Frantzia, Alemania, Suizara ta garai haitan hura zan posgerra deitzen zaiona, bai Eta jende asko juten zan hara, baiño jartzen zizuten lan aluk, hango... beak ein nahi ez zuen /etzuen/ lana zutzako.
 - Txarrenak.
 - Txarrenak, bai, bai. Eta, orduan, "Koño, ni ez niak /eniak/, ba. Ni ez niak hara" ta ni jun nitzan Ameriketa.
 - Ameriketa, jo zu ya jun zinan beste maila batea, e?

- Bai, eta, behiñin, hara jun ta han zazpi urte in nittun, bai. Eta ondo, jangoikoi eskerrak, ondo.

- Ta nola jun ziñan?

- Nola jun nitzan? Esango dizut, esango dizut, xentimo bat ordaindu gabe jun nitzan. Zeon, zeon... hua ´de gerra denboan sortutakua, la CIME, Comité Interministerial de Migraciones Europeas zan hua. Eta orduan ez zenun /etzenun/ ordaindu bihar. Beak eskatzen zuten guziya, zuk konpletatzen zenun ta, klaro, azken-azkeneko... azken-azkenekua "dena konpleto?," bai, dena badaukat zuek eskatzen dezuena /eskatzezuena/", "Bainan hemen eskatzen dute beste gauz bat", "Eta ze eskatzen due ba?" ta "Jun zaizte udaletxea, ta aber zer nahi duten ta legiak ze esaten dun" ta "Bai" ta "Zer da hori?" ta "Horrek esan nahi du Documento de no Mendicidad", "Baiño zer da hori?", "Pues zu ez zabiltzala kalian eskian. Ez zabiltzala". Eta hoi azkenian zu! Nee artian geozkotikan zenbat aldiz, oain honea etortzen dianai hoi dokumentoa ekartzen due honea, "de no mendicidad"? Halaxe zan ba, halaxe zan ba. Eta ni joan nitzan Amerigo Vespucci barko italianoa zan, eta jun nintzan Bartzelonatikan, pues, kanalea, Bartzelonatikan juten zea Venezuela ta geo handikan ya sartzen zea Panaman.

- Zenbat eguneko bidaia izan zan?

- Bueno, hua luze in zan baiño bazun bee motibua. Hua zan "barco mixto", e? Osea, pasajeruak zian hogeita hamar; hogeita hamar, beak ohi onakin-ta zaudenak, e? Ta, gaiñeako guzik geuden gu literakin, baiño ez genun ordaintzen, ez genun ordaintzen, e. Ta, orduan, ba, zan debalde eta... Eta [...] horrekin nik handik ya kruzatzen dezu kanala eta ya hortikan hartzen dezu Pazifikuan, pues, jun nitzan Valparaisoraiño, Valparaisoraiño.

10. Ameriketako lehen lana: mahatsa biltzea

- **Erref:** DON-035/018
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Plantazioetako lanak diasporan
- Diaspora » Euskal Etxeak
- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia

Laburpena:

<p>Valparaisora iristean (Txile) gertatu zitzaiona. Komentu batean egon zen egun eta erdiz. Santiagoko Euskal Etxera joan zen gero. Mahatsa biltzen hasi zen lanean. Eta greba egin zuten langileek. Azkenean konpondu ziren nagusiarekin.</p>

Transkripzioa

- Valparaisora iritsi giñanian, bueno, pues, joe, nik esaten nun... Nik ohittuera dakat -ez dakit txarra o ona- tximinieidi beidatzea, tximinieidi beidatzea, elizako torre hoidi, eta ingurun bat bazeon, bat bazeon ingurun. Me kauen sos! Hau ya hau neria dek ba! Eta egun ta erdi ein nittun han, konbentu hartan. E? Karmelitik zian. Ondo jan ta...

- Hara jun ziñan, orduan?

- Bai, bai, bai. Ostiral santu euna zan, ostiral santu euna zan. Eta eondu nintzan han, pues, eun ta erdi. Handikan jun nintzan Santiagora, Santiagotikan... Santiagotikan behera han badago eusko etxia, ta eusko etxea jun ezkeo, dena libre dezu. Eta astelehenian, astelehenian, e? Hoi

zan... Ostiral santu eunian iritsi.

- Pazkua.

- Bai. Eta astelehenian bertan han eusko etxian batek esan tzian "Nundik etorri zea?" ta "Donostitikan" "Joño, joño, Donostitikan" ta "Bai, bai" ta "Ze in bihar dezu?" ta "Lana", "Bueno, baiño lana... nik badaukat zutzako lana", "Bai? Ta ze lan da, ba?" ta "Mahatsa, hasten gea mahastikin, mahatsak biltzen", "A bai?", "Bai, bai, bai", "Earki. Eta nola.... Bertan dao?" ta "Ez, berrehun kilometro daude", "Bueno, bale". Eta astelehenian hasi giñan mahastin, mahatsak biltzen. Ta bagiñan, pues, hortxe... hoi, binaka jun bihar dute mahatsak biltzen dijuaztenak; ba, mahast... hemen dao ilera eta bat alde batetik, bestia bestetikan, ez... denak bildu in bihar baitia ondo, ez utzi. Eta geo, bukatzen duenak esaten dezu "¡Hilera!" eta, ordun, zuk jun bihar dezu ta benga "A ver aqui... venga, moztu hori, aquí..." zuk in bihar tzenun rebisiyo hori. Ez zan /etzan/ pasa orduerdi bat eta zian parejak eongo zian, pues, hortxe hogeita hamabost bat pareja bai eongo zian lanian, eta esei in tzian denak. Joño... Esei in zian. Bueno. Baiño ya ordu laurden bat eseita, ta "ze puñeta dute hauek? zer due?" ta. Bati galdetu nion eseita zeonai "Oiga, ¿les ocurre algo a ustedes?", "Estamos de huelga, patrón". Mekaguen tu madre! "Estamos de huelga patrón" esaten dia! Mekauen la letxe! Korrika bodegaiño jun nintzan ta "¿Qué pasa?", "Pues dicen que están de huelga", "Los reculeaus, concha de su madre, que se tumbaron". "Ai dios -nere artian-, joder, gaur emango ziatek!". Eta jun zian, jun zian /juntzian/ ta seittun jun giñan berriz´e mahastia, ta ordubete aiko zian beren artian, baiño arrazoi zuen. Han inflaziyo haundiya dago ta aurreko urteko soldatak ez du baliyo, hua moittu in bihar da. Ta hori bazakin hango jabiak´e, baiño, klaro, hasteko gehiegi ematia´re ez emen da ona eta... Eta, zu, ba, konpondu zian ta benga! mahastiya bukatu bitartian mahatsak biltzen hantxe hogei bat eunian, benga mahatsa bildu ta mahatsa bildu, mahatsa zuriya ta mahatsa beltza. Ba, ba, ba, hantxe, hantxe.

11. Okindegia alokatu zuen

- **Erref:** DON-035/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:28:44. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Dendak eta negozioak diasporan

Laburpena:

<p>Txilen zegoela, egunkari batean okindegia alokatzen zutela irakurri zuen, eta horixe egin zuen.</p>

Transkripzioa

- Han´e periodiko onak badaude, Mercurio eta... O.. seriyuak, e? Eta, joño, pues, beidatzen dezu ta "Hementxe zioz bat: Alquilo panadería" , "Alquilo panadería", ta, joe, "Alquilo panadería", bueno, pues... Bueno, pues, telefonoa deittu diyot, "zu, hola ta hola ta", eta "¿De dónde me llama usted?", "Yo estoy en Curicó", "Ay, bueno, bueno la distancia no es nada y tal" eta berrehun kilometrora neon ni, eta, orduan, esan tzian "Bueno, bueno...", "No haga ningún trato con nadie, eh, osea que yo ya apareceré, si no es mañana pasau ahí estoy, ahí estoy". Eta, ba, etorri zan gizona ta, bueno, pues tratua in genun. Baiña esan nion "Jo es que yo de pan... Soy bueno pa comer, pero yo... ¿y quién va a hacer el pan?" eta "Bueno, pues

el pan... no se preocupe que los maestros son pa hacer pan y usted es pa vigilar", "A, ya, ya, ya, vale, vale, vale, pero tenemos que hablar más cosas, porque tenemos que hablar lo que usted me tiene que pagar y me lo tiene que pagar en dolares. Eso es. Y aquí la moneda de aquí no son dolares, es una moneda pobre, pero usted compre dólares y eso los que me tiene que dar a mí". Ta holaxe.

- Ta hor hasi ziñan?

- Bai, baiño hasi nintzan ya hamazazpi langilekin, e!

- Hamazazpi langilekin?

- Hamazazpi langilekin panadein, bai.

- Jesus!

- Bai. Eta, bueno, panaderuana, hua, hua izandu zan...

- Pozik?

- Bai, gustoa, bai, bai, bai.

- Ordun, ikasiko zenun ogiya iten?

- Bueno, ez zan hain...

12. Okindegia alokatu zuen II

- **Erref:** DON-035/022
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Lana diasporan » Dendak eta negozioak diasporan

Laburpena:

<p>Txilen bizi izan zeneko kontuak. Okindegiko lana. Caritasentzat ere egiten zuten ogia. Irin ona zuten mojek. Harakin alemaniar batekin ere tratua egin zuen, "chicharrones" erosteko. Zaldi-karroak zituen hasieran. Zergatik bueltatu zen Euskal Herrira.</p>

Transkripzioa

- Zuek han ze ogi klase eiten zenuten?

- Han eitten nun ogi ona eitten nun. Bai, ogi ona eitten nun. Ta, gaiñea, gaiñea han Caritas bat zeon ta Caritasek zaukan nee ingurun zaukan monjak, monjak, Karmelitak zian, ta, gaiñea, burua hemengua Errentaikua zan. Bai. Eta beakin tratua ein nun nik, nik ingo niyotela, beak ibili gabe ogiya itten, nik neonik eingo niyola ogiya, baiño irin hua... Zu, iriña ona baizuten haiek! Baiño irin hua etortzen zan Ameriketatiken, "harina de Cáritas" zan hua, "una extracción de sesenta y siete por ciento". Ta hango iriña zan pues "hasta el ochenta" ta, klaro, hua zan, pues, oso zakarra ateatzen zan. Eta harek... bueno, nik harekin ateratzen nun ogi ona. Ta geo aparte baneukan nee ingurun gizon aleman bat, bua, berrehun kilo pixatuko zittun harek, karnizerua. Eta, joe, jesus... Eta harek eitten zun txarrikiya asko eitten zun ta, eta beakin tratua ein nun ta beno "vamos a ver, usted me vende los chicharrones". "Chicharrones" dia.. "chicharrones" dia... Zuk seguruasko jana izango zenun, oso goxua da. Hoi, zuk txerriyai kentzen diyozu azala eta geo geatzen da..

- Xigortuta.

- Bai, bai. Ta prejituta, gaiñea...

- [...]

- Bai, oso goxua da hori.

- [...].

- Bai, oso goxua da. Eta, orduan, horrek gizon horrek saltzen zian hori. Eta

guk eitten genun ogi hori, ogi hori. Jesus, bueno! Esango dizut, nik hua hartu nunian, nittun bost zaldi-karro, bost zaldi-karro nittun, bai, ta polliki-polliki kendu nittun denak. Esan nun "Ez, ez, hemen...". Karo, hua eman bihar tzan deskuentu handiyakin ta batea ta bestea ta... "Ez, ez, hemen ein bihar da, mostradorian saldu bihar da preziyo ofizialian, mostradorian, baiño ona eman, ona!". Jesus! Eskerrak hari, bestela oaindik han eongo nintzan ni.

- Nolatan erabaki zenun, ba, bueltatzea?

- Aaaa, bueltatu in bihar da handiken.

- Bai?

- Bai, bai. Bestela...

- Ya diruakin.

- Ba! sos batzuk. Aittu, zu han geatzen baldin bazea, han geatzen baldin bazea, pues ordun zuk "Eta oain zer? Eta oain zer?". Pues, badakizu, zer gertatzen dan arra ta emian tartian, e? Pues, orduan, gauzak eitten dia nahastu, eta nahastutzen baldin badia...

- Zuk euskalduna nahi zenun, orduan?

- Bai, baiño euskalduna bakarrik ez, euskalduna, baiño... baiño hemen.

- Hemen nahi zenun familia?

- Hemen. Bai, bai, bai. Bai, ba, ba, ba, bai. Eta, orduan, pues, ein bihar zenun agudo moittu.

13. Gasolindegia jarri zuen Martutenen

- **Erref:** DON-035/025
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:37:48. **Bukatu:** 00:40:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Diasporatik itzulera
- Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Gastatzen ez zuelako aurreztu zuen dirua Txilen. Duela 45 urte gasolindegia jarri zuten Martutenen. Hango diruak ez zuen berdin balio hemen. Zaila zegoen. Urrezko txanponekin moldatu zen.</p>

Transkripzioa

- Dirua aurreztu zenun bueltatzeko? [...]?

- Bai, baiño ez badezu gastatzen, beti hor egoten da pilla.

- Ta gero inbertitu ingo zenun -hona etorrita- diru hori o ze in zenun?

- Bueno, aurreneko gasolinerak, guk jarri genua, jesus, badittu berrogeita bost urte, badittu berrogeita bost urte, bai. Eta bueno...

- Eta nun jarri zenuten gasolindegia?

- Hementxe bertan, hementxe. Hauxe bea! Hemen dao, hoixe zan aurrenekua, bai, bai. [Gero] beste bat daukau hor goien. Bai, bai.

- Hori Ameriketako diruakin, orduan?

- Ai, ai, dios, honek jakin nahi du diruak nun dauden, e!

- Ez, ez. Klaro, hara joan zinanez pixkat aurreztera ta...

- Esango dizut, esango dizut. Ez zan /etzan/ erraxa, e! Osea ke, zuk dirua biltzen zenun, baiño hango dirua nola ez zun... eitten zan desbalorizatu eitten zan hua,. Bai? Eta, orduan, pues, zuk nahi zenun hua kanbiatu. Bazauden "casas de cambio" ta holakuak. Bueno, pues, eitten zenun kanbiatu ta, ordun, hua jaso, eta bale. Gaiñea, ittia bazeon zuk hemen

libreta iriki ta bialdu ´e bai, hoi ´re ittia bazeon. Baiño geo jun tzan okertzen hori, ya ez zuten /etzuten/ uzten hori eitterikan. Eta geo, geo, ba, esango dizut, azkenian, holako etxi hoitan, urrezko, urrezko... e? saltzen zien urrezko... "monedas de oro", "monedas de oro", bai. Eta, bueno, bueno, kontuatzeako, bea kontuatzeako ya, koño, pues, pollik-polliki jun giñan bat eta geo bestia, ta geo bestia, ta geo bestia... Jo, ta goatzen naiz, gaiñea, eskerrak haidi, diru haidi, hemen bazeon, hemen bazeon, Donostin, "casa de cambio", ta "casa de cambio" horrek [Besne] zun izena, [Besne].

14. Gasolindegiko kontuak

- **Erref:** DON-035/030
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>30 urte bete aurretik bueltatu zen Ameriketatik. Gasolindegian egin zuen lana. Auto gutxiago zegoen. Txilen 24 orduz egiten zuen lana batzuetan. Antonio anaia eraman zuen hara, 1962an, baina ez zitzaion gustatu. Gasolinarekin hasi ziren. Campsa zen lehenengo. Suitzara joan ziren, eta Aviarekin jarri ziren harremanetan.</p>

Transkripzioa

- Ta zenbat urtekin etorri ziñan Ameriketatik?
- Nik? Ni etorri nintzan hogeita hamar ein gabe.
- Ordun gero hor beste hogeit urtian...
- A, bai, bai.
- [...]
- Bai, bai, baino...
- [...] lan ta lan.
- Bai, lan ta lan, ba. Lana, lana.
- Gasolindegia ireki zenun.
- Bai.
- Eta automobil asko zegon garai hortan?
- Bueno, automobilak bai, bai, bazien automobilak hemen, baiño ez uain bezela, uain kotxe asko dago, kotxe asko dago.
- Ta nola okurritu zitzaizun gasolindegia jartzea?
- Ni ibili nintzan, Txilen bertan ibili nintzan, zergatik nik nakana ofiziyua gogorra zan. In bihar zenun askotan hogeita lau ordun lana. Gabian, eo ura moztu dutela edo mozkortuta daudela jendia... Es ke han ean eitten dute asko. Ta mekauden la letxe, ta, orduan pues, problemak giñun, problemak. Eta, joe, hau bizimodua. Eta nik eaman nun Antonio, zuk ezautzen dezu nee anaia, orduan eaman nun nik hara, hirurogeita bin. Hirurogeita bin izandu zan campeonato del mundo de fútbol Txilen izandu zan, bai.
- Ta orduan jun zan anaia laguntzera okindegira?
- Jun tzan, bai. Eta joe, baiño hillebete eitteako esan zuan "Ez, ni banijua etxea". Ta "Bueno, bueno, baiño nola ba? Osea ke ingo diyau errelebuan, errelebuan, ta biyok soziyo" ta ke ba ez dula nahi. Bea pizkorra da ,eskola ´re badu ta, baiño beak eitten du bizi. Zuk ez dezu ezautuko hure.
- Ikusi izandu det, baiño oain ez.
- Bai.
- Eta gasolinakin hasi ziñaten, orduan?

- Eta gasolinakin orduan, pues, hasi beida, ta beida, ta beida, eta, bueno, hortxe gabilta. Oain, oain, lana eitten deu. Guk...

- Han ireki dute, [hemendik] bera, berri bat, hor.

- Bai.

- Beste bat? Eta hasieria nolakua izan zan, nundik ekartzen zan gasolina edo zenbat surtidore...?

- Ez, ordun zan Campsa. Bai, bai, Campsa zan garai haitan. Hoi da, bai. Baiño geo guk muittuta eta bati eta bestiei aittuta ta launa onakin ibilita, guk in genun baje batzuk Suizara. Eta Suiza, Suiza da herri bat, mundu hontan herriik onena, onena, eta aberatsa ere bai. Bai. Eta, ordun, han pues dago enpresa bat du izena Avia, bai, eta hoi da famili batena. Hau famili batena da. Hau da Iparraldeko famili batena. Honek irabazi zun [Roland] Garros, eta geo... hoi aspaldi hilla da ya hoi, baiño... Baiño hoek´e Aviak´e holaxe dauka. Eta hoiek... hoiek daukate, sortu zuten, pues, petrolioak nola manejatu bihar dian, oain dala larogeita gehio urte. Eta gu... guk nola-hala beste frantses batzukin ta... eta ya ein genun...

15. Gasolindegiko kontuak II

- **Erref:** DON-035/035
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:55:41. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Hasieran, Pasaatik ekartzen zuten gasolina (Camps). 1992ean liberalizatu egin zen merkatua, eta Frantziatik hasi ziren ekartzen (gero Avia). Surtidoreak manibelari eraginda zebiltzan.</p>

Transkripzioa

- Nola zan hasieran gasolindegiko [...] nola zan?

- Ordun zan, hemen zeon Pasaian, Pasaian zeon orduan, Pasaian zeon portun, bai, eta hor zauden... aberatsak zien haiek.

- Campsa zan.

- Bai Campsa, bai, bai. Baina Campsa horrek harrapatzen zun dena. Baiño hoiek zian akzionistak, baiña akzionista fuertiak zian hoiek, bai. Eta hoi bukatu zan larogeita hamabin bukatu zan hori. Ta oain ya dena da libre oain ya "sálvese quien pueda".

- Ordun, hasieran handik ekartzen zan. Eta nola ekartzen zenuten, kamioietan?

- Guk aurrenetikan hasi giñanian ya libre geudenan, libre geudenan, ya ekartzen genun Baionatikan. Le [Boucou], han dago. Hor... nola jun zian... azpeitiarrak-o jun zian, ba, fundiziyuakin ta...?

- Ucin.

- Ucin, bai, bai. Hain aldamenetikan. Bai, Baiño hua ttikiya zan eta ya azkenian itxi in zan hua, bai. Bihar da haundiyagua bihar da, bai. Eta geo, pues, ordun handikan ekartzen zan hori, hemen ez baizeon! Hemenguak zian Campsanak. Campsak ez dizu ematen, pues, aber zeñek ekarriko dizun. Hoi da bai. Baiño gaurko eunian dena-dena libre dao, dena libre, osea ke bakar-bakarrikan ein bihar dezu erosi, erosi, bai, bai, bai.

- Eta hasierako surtidoreak, lehenengo surtidorea, nolakoa zan?

- Bai, Jesus, ematen ziozun manibelai hola...

- A bai?

- Bai.
- Ta manibelai emanda ze iten zan, igo?
- Bai, igo, bai. Baiño ordun konsumoa ttikiya zan, kamionak zian bost milla litrokuak... Oain, berriz, dia hogeita hamahiru millakuak eta dena zan diferente zan, bai.
- Eta gasolina, ze gasolina saltzen zan?
- Gasolina´de, pues, hoiek´e eunetik eunea hobia ateatzen.

16. Motoan Urkiolara

- **Erref:** DON-035/037
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:59:37. **Bukatu:** 01:01:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Gasolindegia jarri zutenean, auto gutxi zeuden. Motoak gehiago. Goizueta bidean ermita bat dago, eta bikote bila joaten dira gazteak. Beste batzuek motoan joaten ziren, Urkiolara.</p>

Transkripzioa

- Zuek jarri zenutenian gasolinera jende askok ez zun ba eukiko automobila?
- Bueno, aizu...
- Bai, gutxi.
- Bai, matrikula bajue zan, bai.
- Motuak gehio.
- Motua bai, motuak gehio, bai. Motuana kontatuko dizut motuana. Ze itten zuten. Ze itten zuten motuekin. Ba, beida, ba, hemen badago ermita bat, hemendik Goizuta birian badago ermita bat, oso ermita politta da, bai, eta San Antoniyo eunian jende asko jutten da, gaztiek. Mutillak jutten dia andregai bila eta neskak, berriz, jutten dia, pues, mutil bila. Hara jutten dia, bai. Ta, joe, oso politta da hori. Zu eondu zea hor.
- Bai.
- Ba, bai. Eta ze esango dizut, pues, beste batzuek pizkorraguak zian. Eta, klaro, etxian´e sosak [geldik] eta... Eta motuakin, motuakin. Mekauen la letxe! Eta badakizu noa jutten tzian? Bizkaitarrak badaukate han mendin beste...
- A, Urkiola.
- Urkiola, exacto. Urkiola motuakin. Jode, hok dittuk espabilituk... mekauen la letxe! Geo atea zian beste espabilitu batzuk eta aittai diruk ostu eta ez dakit zer ta haiek jutten tzian Kubara. Haiek...
- [Motuan] ere bai?
- Ba hoi esaten dute beak, "no pues, oye, a celebrar, a celebrar". Ai, ai, ai, "a celebrar"....

17. Lehengo putetxeak

- **Erref:** DON-035/039
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:02:41. **Bukatu:** 01:03:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

Laburpena:

<p>Lehengo putetxeak. Etxemaite, Donostian. Garestiak ziren hangoak.</p>

Transkripzioa

- Noa juten zian Etxemaitea eta...
- A bai, ba hor tzeuden, bueno...!
- Zer tzegon? Etxemaite?
- Jesus...
- Etxemaite zan.
- Bai, Etxemaite, bai.
- [...]
- Bai, hoi da, bai.
- Ta hor zer tzeon ba?
- Hor tzauden etxe batzuk, baiñ hoik emen tzian onak. Beste batzuk, berriz, zelaiea juten zian plastiko bat hartuta. Ai, ai.
- Baina, horrea jungo zian kotxia zutenak ta hola, ez?
- Kotxia zuenak? Bueno... ez zan /etzan/ hainbeste kotxe, ee.
- Oiñez.
- E?
- Oiñez [...].
- Bai, bai, ba, ba. Baiño, jesus, istori gogorak dia hoiek, e.
- Ez dakizkigu ba.
- Bai, ba, ba, ba.

18. Erromeriak

- **Erref:** DON-035/041
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:05:19. **Bukatu:** 01:06:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak eta dantzalekuak. Oialume, Hirubide, Txikierdi... Principe Saboya...</p>

Transkripzioa

- Hemen ze erromeri edo ze egoten zan, ze jai, hemen inguruan?
- Hemen, hemen zeuden...
- Hiru tokitan zeon.
- Itxoin. Aber, bat zeon Oialumen. Oialume ona zan hemen ingurun.
- Neskantzat, neskak bilatzeko.
- Bai, bai. Hoi ona zan. Hirubide´re zan ona, geo Txikierdi´re zan ona. Bai, bai, bai, hemen onak zauden.
- Dantzatzeke
- E?
- Neskakin-ta dantzatzeke.
- Bai, bai, bai, bai, bai. Geo, oain, Oihartzuna jende asko ez zan /etzan/

juten, zergatik harrika ematen zioten, harrika!
 - Ez zioten kanpokoei sartzen uzten.
 - Ez zioten /etzioten/ uzten ez, ez, ez, ez. Kanpokuak ez, ez, ez. "Hoiek gutzako dia, hoiek, gutzako", bai.
 - Ta zu nora juten ziñan?
 - Hau zan "El mirlo de oro".
 - E?
 - "El mirlo de oro" zan Martutenen. Mutilzaharra pixka bat, baiña "de pelas", ta zakan "mucho éxito".
 - Zeiñek?
 - Zuk.
 - Ooooo. Beti lanian, beti lanian, beti lanian, bai, bai.
 - Nora juten ziñan zu, Hirubidera?
 - Hemen bazauden hola hemen dantzako, pues... Zu gogoatzen zea frontón Gros? Hor tzeon frontón Grosen tzeon, Hotel Principe Saboya. Ona zan hua ´re, ona. Ta zuen tankerako neskak juten zian hara, gaiñea, bai. Bai, bai, bai, bai.
 - Ta zu harea [...] juten ziñan?
 - A! bai ba. Bai, ba. Honbre, bazauden, Igeldo bea ´re ez zan txarra.

19. Martutene nola joan zen aldatzen

- **Erref:** DON-035/043
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:09:01. **Bukatu:** 01:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

<p>Martutene lau baserri ziren. Nola aldatu zen. Etxeak egiten hasi ziren. Etorkinak. Matxetearekin joaten ziren sagar arboletara, egur bila; haietako batekin izan zuen arazoa.</p>

Transkripzioa

- Ta geo, Jose Migel, esaiozu nola etorri zan jendia Martutenea bizitzea.
 - A, bai.
 - Martutene zian lau baserri. Beai aittuta, e.
 - Bai, aurreneko basarriya [Illesbone], aurreneko basarriya bota zuena [Illesbone] izandu zan. Bota ez, gaiñea, erdin erdin in tzian sei bizitza. Irastorza bizi zian, e...
 - Etxeigiaz?
 - Ez. Bueno, bai, Etxeigiaz... Etxegia batekin ezkondu zan Luis Irastortza, bai, hoi da, bai. Eta esaten dizut, esaten dizut, ba, orduan, hoi hola zeola... joe.
 - Nik... goatzen naiz [pare bat bota] ta etxe hoik ein zittuenian, etortzen ziala -ni txikitan- koltxoiak hartuta jendia baiño barra-barra Cacereseik-eta lanea honea, residentzia, edifizio hoik ittea. Gure etxetik gora juten zian bokadilloa hartu ta egunpasa. Egunpasa ez, lanea.
 - Hoik etorri zi...
 - Baiño hola jendea.
 - Hoik etorri zianian, eta hemen Joxe Mari Etxeberria ezkondu zan haitako

baten alabakin. Eta nei diate gorroto pixka bat diate, eta badakizu zergatikan? Hoik etorri zianian, etorri zianian...

- Los hermosos.

- Los hermosos, exacto. Hori da, bai. Ta, orduan, etorri zianian, pues, etorri zian matxetiakin been herritikan etorri zian beren matxetiakin. Ta matxetia zertako zan? Garai haietan ez zan butanorik eta ez zan ezer´e sua eitteko! Eta hoik matxetiakin, pues, gue goiko sagastian...

- Basarria jun?

- Basarriya daukau guk. Gue sagastia jun. Eta nei aittak "Aittu, beida ze ai dian eitten!". Matxetiakin eitten zuen moztu ta hua sua itteko.

- Egurra.

- Egurra, bai, egurra, baiño zui... zu, sagarra eman bihar zuan arbola moztutzen! Ta, joe. Eta aska batekin ni bijilatzea hua. Ni bijilatzen ta "mekauen! han ai dek ba" ta dinbi ta danba, bea matxetiakin ta nei zigorrakin, berriz. Eta, joe, nola-hala jetxiazi nun eta hanketan´e bai astindu pare bat eman bai eta geo joder, "joder, que ese nos ha pegau" ta "Han ido allí" ta "Sí, sí", "Explicarlo bien eh, explicar... y visitar el manzanal. Eso es, visitar el manzanal. Pues no se puede, oye, un manzanal, que está en plena producción, que necesita calentar. Y con qué habéis calentau hasta ahora, oye?".

- Haiek etorri zian lehenbizi, nik uste.

- Lehendabizi etorri zian, bai.

20. Martutene nola joan zen aldatzen II

- **Erref:** DON-035/044
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 01:11:58. **Bukatu:** 01:14:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Baserriak eta villa frantsesak zeuden lehen Martutenen. Baserrien izenak. Artolategi. Etorkinak. Etxe merkeak egin zituzten, Aita Abarzuzak bultzatuta, langileentzat.</p>

Transkripzioa

- Hemen ze baserri zeuden lehen, hasieran? ze etxe?

- Hasieran etxe gutxi, gutxi, bai.

- Geo francesak villak, ezta?

- Bai, villak, bai. Hemen zauden, hemen zauden "Las cinco villas". "Las cinco villas", bat zan del Marques de Vaqueres y Conde de la Puebla de Maestre, eta hori ezkondu zan Villa Erroko alabakin. Aita hua zan medikua, Calle Priñen [Prim] zun harek. Bai. Eta... eta, orduan, hoiek zakaten villa hori ta hortikan in tzun amistadia...

- Markesa... nere aldamanekuakin, markesana.

- Markesanakin, bai ba. Bai ba. Eta hortikan. Baiño uste det oso elementua zala hua.

- Zein? Markesa?

- Herri guztitan bazula harek andregaia. Markesak.

- Markesak?

- Bai.

- Klaro, ordun... Oaindikan´e badaude villak hemen ezagun dutenak

francesak diala.

- A! Bai, bai, villak bai, villa Gorriya bea, bai.

- [Villa Gentza] eta hoiek. [...].

- Bueno, [Villa Gentza] ondo geatu da, e? Bai, bai, bai, bai, bai.

- Eta ze baserri zeuden? Nola zuten izena?

- Basarrik? Basarrik hementxe bertan...

- Artolategi.

- Artolategi, bai. Artolategi zan basarri bat, Ameriketara ibili zian ta geo basarriya in tzuten hemen ta, bueno, hoiek lan asko in tzuten.

- [Diruta jun ziala hoiek danak nik uste det].

- Bai, baiño diru asko jaso zuten hoiek, e!

- Ez dakit oain nola egongo dan.

- A! Bueno, oain ya... Karo, hoiek hil tzian Ramonita ta Martin ta hoiek denak hil tzian hoiek.

- Baiño basarrik gero hemen pare bat [...] gero ein zitun etxiak, ez?

- Bai, bai, bai. Baiño hor ez zan /etzan/...

- [...] batek.

- Baiño, aittu, baiño hor ez zan /etzan/ basarriik, e! Hoi Zozuana zan terrenu hori. Bai. Zozuanian zeon errota. Bai. Dago... erreka da putre-erreka. Bai, putre-erreka da hua, bai.

- Baiña trenian etorri zian cacereño hoiek denak, guk esaten giñon ordun "Los churrianos".

- Bai, ba "Los churrianos".

- Zian pila ta. Ta ordun fraile batek, zuk jakingo dezu, ba, pensatu zun "como casas de protección", oso merkiak, oso... pobriak etxiak ein tzitun ordutan, baiño, behintzat, beharra... "derecho a cocina" bizi zian pilaka jende Martutenen.

- Urtetan! Eta zazpi mila duron saldu zituzten pixuak.

- Ta zian hor etxe batzuk... Oain dirua ya balio dute, porke in dittuzte txukundu, baiña ordutan ein zittuzten oso pobriak. Gero esaten zuten "Es que ha hecho miserables". Klaro...

- Bai, bai, bai. Baiño, aittu.... Horrek dittu, [...] horrek dittu ehun ta hogeita sei bizitza dittu horrek. Ta geo bajuk.

21. Euskaraz kantatzeagatik atxilotuta

- **Erref:** DON-035/046
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:15:50. **Bukatu:** 01:18:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Igande arratsalde batean tranbia hartu zuten Donostiarako, eta bidean euskaraz kantatu zutelako atxilotu egin zituzten. Zorzti igandetan erdara ikastera joan behar izan zuten. Beste behin, Martuteneko jaietan, berriz atxilotu zuten.</p>

Transkripzioa

- Gu hor ibiltzen giñanian, Rosarionian-ta, eta igande atxalde batian gu han gaude tabernan eta geo tranbia, tranbia zan hemen, ta tranbia hartu ta, pues, baguaz Donostia. Eta guk birian, pues, "Kalian gora taalian behera" ta holakuak eta, jode, Amara iritxi geanian, nei bat ta geo beste bat, Antxon, biyoi hartu ta ala! guazen barrura, guazen barrura. Ta geo, geo

zortzi igandetan segidan, segidan, jun bihar izandu genun "a aprender español y esto y lo otro".

- A bai, e?

- Bai.

- Orduan, kalabozora euskeraz hitz eitearren?

- Hoixe ba! Hoixe. Ordun hoiek zauden, ordun zauden hoiek oain nola dago hazienda estatala nola dago...?

- Calle Okendon.

- Calle Okendon, bai. Hortxe zan villa bat, hor zan villa bat, han zauden hoiek, han zauden hoiek.

Ta beste behin -eske joe nik zortia beti izaten nun, tontuena beti harri harrapatzen zioten- hemengo festak zian, hemengo festak zian. Eta goatzen al zea zuk villa Belen ta...? Hemen kamiyo ixkiñan zegon txabola bat. Ez zea /etzea/ goatzen, e? Txabol bat zan hor. Eta txabola hartan zaukaten kontadoria uran kontadoria-ta zian. Eta festak eta... batenbatek, pues, ez dakit nola ingo zuen, baiño txabola hoi bota in zuten. Joder, bueno! Ta ni, gañea, Abellanekin lanian ai nintzan ni orduan, e, transformadoretan ai nintzan ni lanian. Eta, joder, hurrengo eunian, zu...

- Detenidos.

- Detenidos, detenidos. Berriz´e, mekaguen la puta!

- Eta nora jun ziñan erdera ikastera nora jun ziñan, ba? Zortzi igandetan?

- Zortzi igandetan, bai.

- Nora?

- Pues orduan jun bihar tzenun munizipalak zauden calle Urdanetan. Oain´e han daude, bonberuen onduan. Bonberuak ya aldatzen dia, oain ya gora dijuazte.

- Ta hara jun ziñan. Ta han ze zeon, maixun bat edo...?

- Hantxe jartzen zizkizuten ta "a hacer deberes y venga".... pues, aguanta, aguanta.

- Zenbat urtekin hori?

- Hori, pues, ez dakit, ba, pues, hemezortzi bat urtekin.

22. Martuteneko eskolak

- **Erref:** DON-035/047
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 01:18:22. **Bukatu:** 01:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Martuteneko eskolak. Sarroeta eta Amara Behea, errekaren bi aldeak. Okondotegi, agustinoak, apostolado... zeuden ibaiaren beste aldean. Aingelu, Etxegia... Denak itxi zituzten 1970ean. Eskola nazionalak jarri zituzten. Bera gutxi joan zen eskolara.</p>

Transkripzioa

- Ta zu eskolara nora jun ziñan?

- Guk eskola, eskola guk genun orduan, garai hartan, hemen zeuden hemen eskolak zian mordoska, baiño ez zian onak. Zien ttikik eta... bueno. Baiño zauden hasi ibaitikan hauntza... Ibaia zan ejia herri batena eta beste herriya; gu giñan del barrio de Sarrueta, gu Sarrueta eta ibaitikan hauntza zian Amara bajo.

- Bai, ni ere hala naiz.

- Zu Amara bajo ta gu giñan Sarrueta.

- Oain´e bai.

- Klaro, zuk enpadronamentun ta bai, bai, hoi bai. Bueno, pues, ordun hoi hola zan, e? Eta esango dizut, eskolak hasi Okondotegitikan, Okondotegin zauden neskak bihan, mutilak goien. O aldrebes. Han zauden. Hua zan harrizko... harrizkua zan eta su hartu zun harek, eta erre in tzan, hango eskola hua. Eta alderdi horrek, Amara bajok, zittun, esango dizut, zuen Okondotegi, geo haundi hau frailiena, Agustinos, bi, geo Apostolaua hiru, geo villa... [osaka] inguru hauetan bizi dan hoi, ze izena du horrek?

- [Osaka] bizi dena, Villa Gentza?

- Ez, ez, ez, ez .

- Zein bizi zan?

- Nola da hoi?

- Señorita Juanita zan maestra hor.

- Bai, Juanita, bai, Juanita kaxetera. Ez, ez, ez, ez, itxoin pixkat... hoi... aber nola dian hoiek...

- Hemen Aingerun eskola berriz.

- Bai, baiño hoi ibaitikan hauntza esaten dizut nik, e? ibaitikan hauntza. Geo zauden mojak, apostoladokuak. Bai, hoi da. Geo hemendikan, berriz, Aingeru ya, Aingeru; bestia hemengua, oain...

- Etxegia.

- Etxegia, Etxegia. Hoiek, hoiek zauden. Pues, esango dizut, hoiek denak bukatu zian, denak bukatu zian momentu batian eta, esango dizut, hoi gertatu zan hirurogeita hamarrian, hamarrian gertatu zan.

- Baiña zu eskola horrea juten ziñan?

- Ez.

- Ez, zuk noa? Astigarra?

- Bueno, Astigarra... baiño ya... ya gerra denboan, gerra denboan, pues, esaten tzan egoten ziñan igual hillebete leku batian, beste hillebete beste leku batian... eta hoi hola zan.

- Eskolan?

- Bai. Eta eskola, gaiñea, zero [...]. Aittu, eta, esango dizut ,ba, geo, geo hirurogeita hamarrian, hirurogeita hamarrian, gui atera zaigun loteriya, loteriya atera zaigun, bai. Eskolik gabe gauden eta hirurogeita hamarrian, pues, gertatu zan Gobierno españolak nahi zittun nola-hala eskolak sartu Euskal Herrin, eskolak sartu. Eta zuek gogoatuko zeate, nun-nahi ein zian eskolak, nun-nahi, eskola handik eta ttikik´e bai...

- Nazionalak esaten zitzaien, ez?

- Bai, bai, bai. Eta, orduan, hemen, hemen gu gauden lehen esan degun horrekin.

23. Astigarraga eta Martutene

- **Erref:** DON-035/049
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:22:21. **Bukatu:** 01:24:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

<p>Astigarragaren historia. Herri izaera galdu eta berriz nola berreskuratu zuen. Martuteneren historia. Izena nondik datorren; baserri baten izena zen. Herri izatetik distrito izatera pasatu zen.</p>

Transkripzioa

- Hemen, Astigarragan... Astigarraga zan herriya, baiñan berrogeita hirun, pues Donostiyak kendu in ziyon, herri gabe geatu zien Astigarraga, herri gabe geatu zien.
- Nik uste nun saldu in tzuela. Saldu.
- Ez, ez. Espabilatuk in zuten. Hoixe... Saldu... Bueno, total que hori gertatu zan berrogeita hirun. Eta geo, Alkainen denboan, larogei eta seian holaxe, in tzuten referenduma ta esan "Ez, ez, guk nahi deu geona, geon herriya da hori" ta bueltatu in zioten. Baiño gui ez zaigun /etzaigun/ hoi tokatu.
- Martutene herri betikua.
- Bai, bai. Martutene da etxe baten izena, badakizu.
- Zuri aittuta.
- Bai, bai. Hemen badago zubiyan onduan taberna bat, estankua ´re in du, denet... bueno. Hoi zan Caserío Martutene. Nik badaukat eskritura bat del Caserío Martutene. Bai. Eta, orduan, hori, hori hor gertatu zan, ba, geon eskolakin, pues... Hogeita hemeretzi, hogeita hemeretzin izandu zan bigarren gerra mundiala, hogeita hemeretzin , bai. Pues el año treinta y nueve, ordun geatu giñan gu herri gabe. Ta guk beti esaten deuna "Aquí todo cristo se va a ir de vacaciones al pueblo. ¿Y los que no tenemos pueblo a dónde vamos a ir, oye?"
- Es verdad, barriya geatzen da...
- Bai, ba. Denak "al pueblo". "¿Y los que no tenemos pueblo a dónde vamos a ir nosotros?". Holaxe geatu giñan gu herri gabe. Ta ordun gu geatu giñan, aurrenetikan Astigarraga ´e bai urtetan, eta gu geatu giñan "como distrito".

24. Martutenen parrokia egin beharra

- **Erref:** DON-035/051
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:25:40. **Bukatu:** 01:27:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Argazkiak erakusten. Don Ramon Trueba apaiza izan zen Martuteneko lehen erretorea. Parrokiarik ez zen lehenago. Martutene Altzako Sarroeta auzoa zen. Altzan zuten parrokia.</p>

Transkripzioa

- Beira, aber zuk hauek ezagutzen dittuzun.
- Jo, Don Ramón Trueba. Gure apaiza zana, erretoria. Dominatzen zun... esaten zuten...
- Aurreneko parrokiya in tzanian hoi etorri zan bikariyo honea.
- Osea ke zu egon tziñan hemen hau distritua zenian?
- Bai, bai, bai.
- Alkate... nola esan dezu? Alcalde...
- "Alcalde pedáneo. Sí eso. Del distrito de Alza en San Sebastián, porque, claro, esto es San Sebastián ahora. Eso es".
- Baiño lehanao zer zan?
- Hau zan "el barrio de Sarroeta del pueblo de Alza".
- Altza?

- Bai, bai, Altza, bai.
- [...] utzi nazu.
- Bai. Aittu, bai, baiño bueltatu bihar diazu, e!
- Eta parrokia lehen ez zeon, ala?
- Zuek hau ez zenuen ezautuko... Aber, itxoin pixka bat. Bai, bai.
- Bukatzen deunean ikusiko de.
- Bai, bai. Aittu...
- Parrokiarik ez zeon hemen aurretik, ala?
- Ez, ez. Ez zan parrokirikan, ez.
- Eta nun in zan parrokia?
- Gure parrokiya zan Altza.
- Altza?
- Bai. Eta hoek, berriz, zuten Buen Pastor. Bai.
- Guk erriyuan beste aldea.
- Ibaikiran hauntza hor zan Buen Pastor. Bai. Baiña denian ejia da ibaia, ibaia, bai, bai, bai.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com